

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Igandea sakratua da



Konstantino enperadoreak (ezkerrean) lege ezarri zuen igandea atsedeen eguna izatea. Industria Iraultzan, ordea, langileek asteko zazpi egunetan lan egiten zuten.

ERROMA, K.O. 321. Konstantino I.a enperadoreak derrigorrezko atsedeen egun izendatu zuen igandea. Gaur egun ez dago zalantzarik kristauen jai eguna igandea dela, baina ez da beti horrela izan. Bibliak dio egun sakratua larunbata dela. Lehen kristauen tzat huraxe zen atsedeen eguna; gogoa izan, finean, juduak zirela eta *sabata* errespetatzen zutela. K.o II. mendean hasi ziren igandea kontuan hartzen: igandean sortu zuen Jainkoak argia eta, batez ere, igandean berpiztu zen Jesukristo.

Konstantinoren legeak ez zuen larunbata erabat alboratu. Jainko kristauaren gurtza-egun nagusia izan zen oraindik urte batzuetan. Igandea, berriz, eguzki-jainko paganoen eguna zen; begira bestela igandea esateko ingelesek erabiltzen duten hitzari: *sunday* (eguzki-eguna). Antzinako Erroman du jatorria hitz ingelesak, haien tzat asteko azken eguna *dies solis* baitzen.

Baina Konstantinok Inperioan kristautasunaren nagusitasuna ahalbidetu zuen moduan, apurka igandearen sakratutasuna ezartzea ere lortu zuen azkenean. Domeka latinezko *dominicus, dies Domini*-tik dator. Handik aurrera, berez, igandean ez zen lanik egingo eta Jainkoari eskainiko zitzaien atsedeen eguna.

Jaiegunaren etsairik gogorrena Industria Iraultza izan zen. Liberalismoak eliza katolikoaren hegemonia hautsi zuen mundu honetako kontuetan. Entziklopedia Frantsesak, esaterako, zera zioen “Dimanche” artikuluan: “Igandean lan egin behar da guztion aberastasunaren mesedetan”. Aitzakia ederra fabrika berriak etengabe produzi zezaten.

Horregatik, XIX. mendean langileen eta eliza katolikoaren interesek bat egin zuten. 1891an *Rerum Novarum* entziklikak, besteak beste, igandearen izaera sakratua jasotzen zuen; otoitzerako eguna zen, ez lanerako. Sindikatuek, beste modu batera, gauza bera eskatzen zuten. Horrela, alde guztietako presioak eraginda, estatuak hogeita lau orduko atsedeenaren aldeko legeak onartzen hasi ziren pixkanaka. Lehena Alemania izan zen, entziklikaren urte berean, 1891n. Gero Espainiak onartu zuen atsedeen eguna, 1904an. Eta 1921an, Versallesen itunean zehaztu zuten, atsedeen egun hori “ahal den neurrian, herrialde bakoitzeko ohiturek kontsakratutako egunekin bat etorriko da”.

Orditik igandea atsedeen egun ofiziala da Mendebaldeko herrialde guztietan. Baina, gainera, juduak ez izanda ere, *sabata* errespetatzen, hots, larunbata lanik ez egiten saiatzen gara, ohi-tura onak ez baitira galdu behar. ■

ARRASTOAK

ADOLF HITLER-en liburutegi pribatua aztertu du Timothy Ryback historialariak eta bere lanaren emaitza aurki argitaratu du den *Hitler's secret library* (Hitlerren liburutegi sekretua) lanean bildu du. Hitlerrek 1.200 liburutik gora zeuzkan Berchtesgaden-eko (Baviera) gotorlekuan eta 1945ean, gerra amaitzean, AEBetako Kongresuko liburutegira eraman eta gela itxi batean gorde zituzten

Hitlerren liburuen artean Gottlieb Fichte filosofo alemaniarren hainbat obra aurkitu ditu Rybackek; filosofoak dimentsio politiko berria eskatzen zuen Alemaniarentzat. Bitxia da Nostradamusen profeziak ere irakurri zituela Hitlerrek; 1921ean erosi zuen liburua eta gerra amaitu arte gorde zuen. Nostradamusen profetia horietako batek 1939an Alemaniak gerra handi bat eragingo zuela esaten omen du.

Baina harrigarriena da diktadoreak berak debekatutako hainbat egile juduren obrak irakurri eta bildu zituela.

